

ERANSKINAK



## KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

Ogasun Batzordeak 2015eko abenduaren 21an egindako diktameneko kopuruen arabera, 2016ko ekitaldiko **AURREKONTU OROKORRA**ren proiektuak **35.443.258,50** euroko zenbatekoa du. Proiektu horretan sartu ditugu, UDALAREN aurrekontua, **32.078.733,50** eurokoa eta ITURBIDE EGOITZA Erakunde Autonomoaren aurrekontua, **3.433.766,48** eurokoa.

**Udalaren aurrekontua nahiz Erakunde Autonomoen aurrekontuak aurrekontuei buruz indarrean dauden legezko xedapenen arabera egin dira.** Aurrekontuko kopuruak kalkulatzeko erabilitako irizpidei buruz, beharrezkoa da ondorengoa adieraztea:

**Diru-sarreraren aurreikuspenak kalkulatzeko, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2015 urtean likidatutako eskubideetatik abiatu gara,** itxiera aurrerapenaren datuen arabera, **kontuan izanik Ordenantza Fiskaletan sartutako tarifa aldaketak,** Udalbatzarrak 2015eko urriaren 13an hartutako akordioaren arabera (orokorrean 2015ekoekiko igoerarik gabe, eta ohiko egoitzaren erabilera ez duten ondasun higiezinaren gaineko zergaren gainkargua ezabatuta) onartutakoak.

**IV, VI, VII eta VIII. kapituluetarako,** oinarritzat hartu dugu orain dagoen **informazioa,** bai eta beste **erakunde batzuek hartutako diru-laguntza konpromisoak** ere (Udal Finantzetako Foru Fondoaren parte-hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Dena den ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen balizko desbideratze negatiboak (batez ere VI.Kapituluko - Inbertsio Errealak Inorentzea eta VII. Kapituluko – Kapital Transferentziak, inseguritate maila handien duten sarrerak horiek baitira) kontrolatu beharko ditugu aurrekontuaren exekuzioa berraztertzeko testuinguruan eta, desbideratzearen tamainaren arabera, aurrekontua orekatzea lortu beharko dugu, gastuak murriztuz edo diru-sarreraren igoera osagarri bat bilatuz.

**Gastuen atalean, adierazi daiteke nahikoa dela daukagun aurrekontu kopurua zerbitzuak normal funtzionatzetik datozen eta eskatu daitezkeen obligazioak betetzeari erantzuteko.** Dena den, nire iritzian, aurrekontua betetzeko arauak eta horiek ematen dituzten malgutasunak ahalbidetzen dute modu nahiko errazarekin ekitaldian sortu daitezkeen gastu desbideratzeei 2014ko aurrekontuak egokitzeko.

**Pertsonal edo langileen kapituluko gastuei dagokienez,** horiek kalkulatu ditugu, termino homogeneoetan, **2015eko** bukaeran indarrean zeuden **ordainketei buruz %1eko igoeraz,** 2015/48ko Legeak, urriaren 29koa, Estatuko 2016rako aurrekontu orokorrei buruzkoa, ezarritako muga arabera.

Gainerako diru-sarrerekin ezin estali daitezkeen gastuak finantzatzeko, **Udalaren aurrekontuan jasota dator mailegu bat eskatzea, 876.810,50 eurokoa,** eta **ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren** kasurako, beharrezkoa da udalaren ekarpena, 2016ko ekitaldian aurreikusten den **defizita estaltzeko, 49.241,48 eurokoa.** Diru-sarrera horien bidez aurrekontu biak, UDALARENA eta ITURBIDE EGOITZARENA berdintzea lortu dugu.

2016ko ekitaldirako jasota dagoen aurrekontuetako zorpetze berriko zenbatekoari dagokionez, 876.810,50 eurokoa, esan behar dugu, aurreikusitako mailegu berria sinatuko balitz ere (seguruenik egingo ez duguna, izan ere, estimatu dugu ez dugula behar izango mailegu berririk, 2015eko ekitaldiko itxieran soberakinak sortu direlako), legez finkatutako 2016rako helburuak bete egingo direla, hots, **aurrekontua egonkortzekoa, zor publikoarena eta gastu arauarena** Aurrekontua Egonkortzeari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan nahiz garapeneko hurrengo legezko araudian ezarritakoak, besteak beste, 2015eko azaroaren 17ko datuz onartutako Gipuzkoako Diputazioaren Instrukzioak, 25eko GAO n argitaratuta, Gipuzkoako Udalei aplikagarria dena, eta 2016rako helburu hauek ezartzen dituen:



- Toki Erakundeei aurrekontu **egonkortasuneko helburuak (zero defizita)**
- **Zor publikoa** (2015erako diru-sarrera arrunten **%80ko muga** eta %70ekoa 2020an betetzeko)
- **Gastuaren araua** (2015eko gastuari buruz **%1,8 gehienezko hazkundera** ezin da gainditu).

Hiru helburu hauek bete direla egiaztatzeko txosnen honekin batera doan agiri osagarrian ikus daiteke.

Gaurko egunez, konpromiso kredituak ditugu, 2016ko ekitaldiaren eta hurrengo ekitaldien kontura onartutakoak, 1.145.436,63€an, hein batean, Etxaluze-Musakolako bidegorriko obretarako hasitako kontratazio espedientetik datozenak (635,4 mila euro), Udalbatzarrak 2010eko urriaren 7an eta 2013ko abenduaren 17an hartutako akordioetatik datozenak (319,1 mila euro), "Polo de Innovación Garai S.Coop." entitatearen kapital ekarpenari buruzkoak; hura ordainduko da baldin eta Eraikuntzen gaineko Zergarengatik edo Hiri OHZrengatik diru-sarrerak sortzen badira, berrikuntza gune horretan. Onartutako beste konpromiso kreditu batzuk datoz Hondarribia Kaleko eta Etxe Txikiak esparruen plan bereziak idazteko abian jarritako kontratazio prozeduratik, guztira 65,3 mila euro, Lorenzo Rojas jaunarekin sinatutako hitzarmenetik datozenak Zalduspe Kaleko pabiloi bat husteagatik eta botatzeagatik (90 mila euro 2019 urterako) eta, gainontzekoa, alde zaharreko eraikinetan intsektuak kendu eta termiten izurritea kontrolatzeko kontratutik dator, 5 urteko aldi batez (2014-2018) eta 118.901,86 euroko adjudikazioaz, horietatik, 2015eko urte bukaeran 35,7 mila euro konpromiso kredituak dira. Halaber, aurrekontuak betetzeko arauak jasota dute 2016an konpromiso berriak hartzeko aukera, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldintza honekin, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gaineko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikulua eskatzen dituen baldintzak betetzea. Laburbilduz, gaur arte onartutako konpromiso kredituen zenbatekoa ikusirik eta kontuan izanik horietatik gehiena (%70a) 2016ko aurrekontuetan eragina daukatela eta, berez, 2016ko aurrekontuaren onespenerekin bere finantzazioa bermatuta gelditzen da. Horrengatik, 2016an konpromiso berrietarako jasotako kasuen ezaugarriak kontuan izanik, **esan genezake ez dugula espero arazoak egotea konpromiso kredituen finantzaketari aurre egiteko Udalak duen gaitasun ekonomikoari buruz.**

Azkenik, adierazi behar dugu, Aurrekontua onartzeko, **Udalbatzarraren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela.** Aurrekontua onartzeko hasierako akordioa hartu eta gero, jende aurrean erakutsi behar da akordioa, eta gure Lurraldeko Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren Iragarki Taula Nagusian argitaratu 15 eguneko epean; eta epealdi horretan aztertu ahal izango dute interesdunek eta aurrekontuen aurka egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Jende aurrean erakusteko aldiaren erreklamaziorik jaso ezker, hil bateko epean erabaki beharko ditu Udalak.

Horixe da esateko daukadana, Arrasaten 2015eko abenduaren 21an.

KONTU-HARTZAILEA

**2016ko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA -2015/11/17KO AGINDUA - ZERO DEFIZITA**

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I -VII KAPITULUEN BATURA	34.409.427,40 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	34.422.448,00 (*)
	<hr/>
<b>SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA ( 0 defizita ez edukitzeko)</b>	<b>13.020,60</b>

(\*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

**2016rako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - 2015/11/17KO JARRAIBIDEA - 2016EKO ZORRA 2015EKO SARRERA ARRUNTEN %80a**

2016KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA

2016/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2016/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA 1.647.756,32

2016KO MAILEGU BERRIA (nahiz eta aurrekontuetan aurreikusi, ulertzen da ez dela beharrezkoa izango) 0,00

**2016/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA** 1.647.756,32

**2015EKO (2015eko itxierari buruzko baliespenaren arabera) kontsolidatutako sarrera arruntak** 34.640.340,00

**% MAILEGUEN ZORRA / KONTOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK** 4,76

## 2016RAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

### A - 2016 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (2016ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)		34.409.427,40
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)		-27.133,36
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)		-3.305.330,00
- Udala-gastu arrunta	1.212.130,00	
- Udala - Kapital gastua	243.200,00	
- Iturbide	1.850.000,00	
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(ikus 2.taula)		<u>-1.083.896,96</u>
<b>5. 2016rako GASTU KONPUTAGARRIA</b>		<b>29.993.067,08</b>

### B - 2015 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (Gastuen I -VII kapituluak)		33.478.240,00
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)		-27.500,00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 3.taula)		-3.169.000,00
<b>5. 2015EKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>		<b>30.281.740,00</b>
6.ONARTUTAKO GEHIKUNTZA %1,8 (2015/11/17ko Gipuzkoako araudia)		545.070,32
7. 2016RAKO MUGA KUANTITATIBOA		<u><b>30.826.810,32</b></u>
8.ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (ez dira kontuan hartzen)		

ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA	0,00
---	------

**C - 2016ERAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA**

2015 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA	30.281.740,00
(+) %1,3 BAIMENDUTAKO IGOERA	545.071,32
(+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA	0,00

<b>2016RAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO</b>	<b>30.826.811,32</b>
--	----------------------

<b>2016RAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>29.993.067,08</b>
--	----------------------

<b>2016AN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA</b>	<b>833.744,24</b>
--	-------------------

# 1.TAULA - 2016AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUAK

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK		1.212.130,00
- E.J. - Kultur Ekintzak	6.000,00	
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	18.000,00	
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00	
- E.J. - Liburutegien dinamizazioarako	3.000,00	
- E.J. - Ongizateko pertsonalerako laguntzak	40.000,00	
- Diputaz. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00	
- E.J. - Harrarea Zerbitzurako laguntzak	7.500,00	
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	28.000,00	
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	220.000,00	
- E.J. - GLL	215.000,00	
- INE - Zentsuaren eguneraketa	310,00	
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000,00	
- Diputazioa - Mendi garbiketa	1.000,00	
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	13.000,00	
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00	
- E.J. - Bake epaitegia	5.000,00	
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.000,00	
- HABE - Euskaltegia	385.000,00	
- Diputazioa - Euskera	21.000,00	
- Diputación - Gazteria	15.000,00	
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	5.000,00	
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	120.000,00	
- E.J. - Hirigune dirulaguntza	29.000,00	
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	9.820,00	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK		
- VII.Kap. (auzo bideetarko ekarpenak izan ezik, gainontzeko denak)		243.200,00
3- ITURBIDE		
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ekarpena		1.850.000,00
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2016ko GASTUAK GUZTIRA		<hr/> <b>3.305.330,00</b>



### 3.TAULA - 2015EAN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUAK

1. Udal aurrekontuko balioespena	
- Korrontea	1.100.000,00
- Kapital (*)	169.000,00

3. Iturbideko likidazioa	<u>1.900.000,00</u>
--------------------------	---------------------

<b>2015an finantzaturako gastuak GUZTIRA</b>	<b>3.169.000,00</b>
--	---------------------

(\*)- 2015ko likidazio aurrerapena

## 2.TAULA: EXEKUTATU GABEKO GASTUEN DOIKETA (KONTSOLIDATUA)

EKITALDIA	HASIERAKOA	EXEKUZIOA	%EXEKUZIO MAILA	%EXEK.GABEKO MAILA
2015 (*)	34.945.603,78	36.130.000,00	103,39%	-3,39%
2014	35.529.104,61	32.191.221,32	90,61%	9,39%
2013	33.569.096,02	32.442.879,52	96,65%	3,35%
media	34.681.268,24	33.588.033,61	96,85%	3,15%

2015ko exekuzioa, ekitaldiaren itxierari buruzko balioespenaren arabera